

# ENPRESA konfiantza

2019ko 2. HIRUHILEKORAKO  
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua - LABORAL Kutxa


## 2019KO 2. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



## 0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Enpresa Konfiantzari buruzko inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, **2019ko bigarren hiruhilekorako** dituzten aurreikuspenen berri izateko. Bada, ondorio interesgarriak eman ditu, aurreko hiruhilekoko balioa hobetu egin baita. Jarraian, ondorio nagusien laburpen txikia eskainiko dizuegu.

Enpresek INGURUNE ekonomikoari buruz dituzten aurreikuspenei dagokienez, % 66,9k uste du egoerak bere horretan jarraituko duela, eta % 11,2k hobetu egingo dela. Ikus daitekeenez, ikuspegi baikorra da nagusi, eta, geroago ikusiko dugunez, aztertutako gainerako aldagai guztietan ere islatzen da baikortasun hori.




# 1 FAKTURAZIOA

Enpresek **2019ko bigarren hiruhilekorako** aurreikuspen positiboa dute fakturazioaren harira: % 51,6ren ustez, mantendu egingo da eta % 36,3ren ustez, hobera egingo du. Enpresen % 12,1k uste du fakturazioa txarragoa izango dela.




## 2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta 2019ko bigarren hiruhilekoan espero den JARDUERAREN bilakaeraren aurrean, % 65,7k uste du ez dela aldaketarik egongo, eta % 20,4k hobera egingo duela. Laginaren % 13,8k baino ez du uste jarduerak okerrera egingo duela.




### 3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, honako zalantza hau sortu zaigu: fakturazioa eta jarduera hobetuko dela uste dutenek gehiago saltzea ala garestiago saltzea espero dute? Emaitzek diote ESKABIDEEN bolumena hobetzeko aurreikuspen argia dagoela. Ondoren agertzen den irudian ikus daitekeenez, inkestari erantzun diotenen % 51,2k uste du bolumenean ez dela aldaketarik egongo, eta % 36,3k hobera egingo duela. Enpresen % 12,5k besterik ez du uste eskabideen bolumenak behera egingo duela.




## 4 | PREZIOAK

PREZIOEI dagokienez, egonkor jarraituko dutela uste dute gehienek; izan ere, inkestagileen % 73,4k uste du prezioek bere horretan jarraituko dutela **bigarren hiruhilekoan**. Gainerako enpresei dagokienez, % 19,4k uste du prezioek gora egingo dutela eta % 7,3k behera egingo dutela.



## 5 ERRENTAGARRITASUNA

Eragiketen ERRENTAGARRITASUNAREN aurreikuspenei erreparatuta, galdetutako enpresen % 66,1ek erantzun du berdin jarraituko duela, eta % 20,4k, berriz, hobetzea espero du. Gainerako % 13,5ak etekin txikiagoak espero ditu.






## 6 | INBERTSIOA


Orain arte azterturiko datuen arabera, egoera nahiko positiboa da, eta, ondoren ikusiko dugunez, badirudi enpresek ahalmen produktiboa eta, ondorioz, langileen kopurua, handitzeko asmoa dutela.

INBERTSIO-bolumenari dagokionez, enpresen % 70,9k uste du eutsi egingo diotela **2019ko bigarren hiruhilekoan**. % 18,7k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea espero du. Horrenbestez, gainerako % 10,4ak uste du behera egingo duela.



## 7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 76,5ek erantzun du ENPLEGUAN ez dutela aldaketarik espero; % 17,6k langile-taldea handitzeko itxaropena du eta % 5,9k guztiz kontrakoa (plantilla murriztu egingo duela).




2019KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



## 8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazle guztiak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu, konfiantza-indizea eskuratzeko, emaitza hau lortuko dugu: 57,5. Indize hori aurreko hiruhilekoko (54,2) baino handiagoa da. Horrek esan nahi du enpresen baikortasuna zertxobait hobetu dela **2019ko bigarren hiruhilekoan** ekonomiak izango duen bilakaeraren harira. Gainera, indizea 50 puntutik gora egonik, hedapen-eremuan gaude, eta datu hori bat dator beste esparru geografiko interesgarri batzuetan, hala nola Espainian (urtarrileko datua: 54,5) eta Eurogunean (otsaileko datua: 51,4), lortutako datuekin.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurretik azaldutako indizearekin zerikusirik ez dutenak. Azken urteko ESPORTAZIOEN bilakaerari dagokionez, inkestatuen % 45,5k uste du bere horretan jarraitu duela eta % 39,4k hobera egin duela. % 15,2ren iritzian, kanpoko salmentek txarrera egin dute.




## 9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZARI edo I+Gko EKIMENEI bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestaturen % 75 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 9k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




## 10 BEZEROEI KOB RATZEKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 79,1rentzat, bezeroei kobratzeko epean ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta enpresen % 15,8ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 5,0k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



## 11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestauen % 74,1ek erantzun du BANKUETAKO FINANTZAKETA ESKURATZEKO AUKERAK jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 12,9k dio hobetu egin dela, eta % 12,9k lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.






2019AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN  
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA



## 12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Hurrengo irudian ikus daiteke aztertutako azken bi hiruhilekoetan adierazle partzialek izan duten balioa, bai eta aurreikuspenen emaitza globala ere.



EKONOMIAREN DEZELERAZIOA




## 13

## DEZELERAZIOA: ARRAZIOIAK ETA ATZERALDIA IZATEKO PROBABILITATEA


Ondorengo irudietan dezelerazioaren arrazoiak agertzen dira, gure enpresen laginaren arabera, baita dezelerazio hori atzeraldi bilakatzeko probabilitatea ere.

Ikus daitekeenez, kausek jatorri politikoa dute eta atzeraldia gertatzeko probabilitatea, oraingoz, txikia da (% 50etik beherakoa), inkestari erantzun diotenen iritzian.

Dezelerazioaren arrazoiak



Atzeraldia izateko aukerak



## Fitxa teknikoa eta metodologia

---

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.

---